

Donostia, 2014ko urtarrilaren 21a

Donostiako Zinemaldiak, IBAIAK eta Biarritzeko FIPAK beren harremana indartuko dute bi ekitaldi horietan garatutako jardueren barruan ikus-entzunezko industria sustatzeko.



Gaur goizean, Biarritzeko Ikus-entzunezko Programen Nazioarteko Jaialdiaren 27. edizioa inauguratu den honetan, lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Donostiako Zinemaldiak, IBAIA Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak eta FIPA Ikus-entzunezko Programen Nazioarteko Jaialdiak berak.

Hiru erakundeetako ordezkari gorenak izan dira akordio horren sinadura-ekitaldian: Francois Sauvagnargues (FIPAREN zuzendari nagusia), José Luis Rebordinos (Donostiako Zinemaldiaren zuzendaria) eta Joxe Portela (IBAIAren lehendakaria). 2007an hasitako lankidetzazko konpromisoaren bidean aurrera egitea ahalbidetuko du akordioak, urte hartan sinatu baitzuten harreman-esparru berri hau indartzeko oinarriak jarri zituen lehen hitzarmena.

Zehazki, IBAIAK eta Donostiako Zinemaldiak –biak ere Donostiako Zinemaldiaren Industry Club ekimenean garatzen diren jardueren barruan egiten den dokumentalen “Lau Haizetara” IX. Koprodukzio Foroan antolatzaile direnak– zein FIPAK –FIPA Industry ekimenaren eta, bereziki, ikus-entzunezko proiektuak aurkezteko jardunaldi batzuen antolatzaile denak– honako konpromiso hauek hartuko dituzte, besteak beste:

- Bi ekitaldiei buruzko informazioa zabaldu eta sustatzea nazioarteko ikus-entzunezko proiektuen parte-hartzea bultzatzeko.

- Ekitaldi bakoitzeko proiektuetako hautaketa-batzordeetan parte hartuko duen ordezkari bat izendatzea.
- Foro bakoitzean aurkeztutako proiektuei beste foroan parte hartzeko aukera ematea, eta bi onenei izen-ematea eta ostatu-gastuak ordaintzea, sari gisa.
- Beste foroko ordezkaria norberaren foroan hartzea.

Akordio honen sinaduraren bidez, Europako profesionalen arteko harremanak sendotzeko beren borondatea eta konpromisoa berresten dute alderdiek, betiere baterako proiektuak garatu eta eskualdeetako ikus-entzunezko industria indartzeko.

Informazio gehiago lortzeko:

IBAIA. Telefonoa: 943 32 71 83

Mail: info@ibaia.org